

KONTROL MOZIOA

HIRIKO AUZOETAN GUNE ESTALIAK JARTZEKO OBRAK DIRELA ETA

Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udaltzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udaltzaren azter dadin. Mozioa 2019ko urriaren 14ean Gune Publikoen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Egiatarrak aspaldi ari dira Plaza Haundi edo Martin Santos plazako estalkia berritu behar dela aldarrikatzen. Egia Bizirik auzo elkarteak gogoeta bat egin zuen estalki berri baten eta haren ezaugarrien inguruan eta 2016. urtean auzo elkarteak gai honen inguruko partaidetza prozesu bat martxan jartzeko eta proiektua gauzatzeko eskaera egin zion Udalari.

2017. urtean, Udalak partaidetza prozesu bat jarri zuen abian Egia Bizirik auzo elkarteak egindako gogoeta horiek auzoko gainerako bizilagunek egindakoekin osatzeko asmoz.

Partaidetza prozesua bukatu ondoren proiektua definitu zen eta lehenengo eraikuntza fase baterako 1.300.000€-ko aurrekontua aurreikusi zen. Aurreko agintaldiko Udal Gobernuak iragarri zuen obrak 2018. urteko udazkenean hasiko zirela eta zortzi hilabeteko epea izango zutela.

Urtebete joan den honetan, bizilagunek zain jarraitzen dute obrak noiz hasiko. Urriko batzordean delegatua interpelatu dugunean adierazi digu adostasun falta dagoela plaza azpian dauden aparkalekuetako jabe pribatuekin eta horregatik ezin izan direla obrak hasi.

Hau horrela izanda, ez du urte beteko atzerapena justifikatzen ezta Zuberoa plazako gune estaliaren baztertzea ere (2017rako obra hau amaituta egon beharko luke). Izan ere, 2019ko maiatzaren 17an udal gobernuak prentsan egindako adierazpenetan Zuberoa plazako gune estaliaren proiektua bertan behera utziko zuela adierazi zuen, aurrekontu guztia Egiakoan inbertitzeko (hau da, aurrekontuaren modifikazioa egin zuen Zuberoa plazako 785.000 euro Plaza Haundin erabiltzeko).

Gauzak horrela, 2015etik aurrera estaltzea aurreikusten ziren 3 plazetatik 1 bakarrik dago estalia.

Hortaz, azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du:

KONTROL MOZIOA

1.- Udaltzarak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari 2019-2023 agintaldian hirian estaltzea aurreikusten dituen plaza edo parkeen berri ematea.

- 2.- Udaltzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Plaza Haundiko gune estaliaren obra egiteko beharrezkoak diren pausoak ematea, 2020ean lanak hasi ahal izateko.
- 3.- Udaltzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari hiriko gune estalien beharrak aztertze eta obren jarraipen egokia egiteko Batzorde bat sortu dezala.

Donostian, 2019ko urriaren 18an

Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia